

Euzkadin bizi diren inmigranteak

Alderdi, 270. zk., 1971-12.

Euskotarrok inmigranteenganako izan dugun kezka au ez da joan den guda ezkeroztik sortua.

Lenengo aldiz Bizkaian, industrializazioaren ondoren bat bezala sortu zen joan dan mendean; orain, eta kolpeko olatu aundi batean bezala, etorri zaigu mugaz onuzko lan eskualdetara inmigranteen ugaritze izugarri au.

Ez dira, noski, guri kalte egiteko asmoetan etorri, naiz eta Espaiñiko politikoak oietzaz balia izan badira ere. Egia dena da, bizi ziren errietan lanik arkitu ez dutelako edo irabazten zituzten sariak exkaxak direlako artu bear izan dutela norabaiteko bidea, euskaldunak askotan Ameriketako bideak artu izan eta oraindik artzen dituen bezala.

Onek, kanpotik etorritako langille oiek gure erriak kokatzeak, ekarri ditu, ordea, ondoren berezi batzuk.

Beste edozein errietan, Alemanin esate baterako, beste kultura bateko milloi bat langille sartzeak ez ditu asko kezkatzen; kezkatzen ditu, noski, baiña erri aundia denez eta onen kultura-bideak bere eskuetan dauzkanez, ez du Alemaniak kultura eta politika aldetik zertaz kezkatu bear aundirik, eta beso oiek emango dien laguntzaren bearrean diranez gaiñera, gauzak nolabait antolatzen dira. Gure toki ontan, berriz, gutxi izanez beste kanpotarren etor-aldi luze eta aundi au neurritz kanpokoa izan da, eta, gaiñera, oien jatorriko kultura lagun eta nagusi dutela etorri zaizkigu eta gure erri-izate osoa il-zorian jartzen ari zaigu.

Batetik, egia da ba, langille oiek ez digutela kalterik nai, eta, bestetik, egia da kalteak ekartzen dizkigutela.

Nola jokatu bear dugu euskotarrok gurutz-bide ontan?

Emen kontu aundian euki bear duguna da gure kultura-alorrean egiten diguten kaltea ez dela langille oiek eta oien sendiak bere gogoz egiña gure erriaren aginte eta lege-bideak kendu eta gure erria zanpatzen dizkigutenak egiña baizik. Orduan, gure egin-bear nagusia erri-bide nagusi oiek gureganatzea da, eta ontan, eta kanpotik etorrita gure erriko egin diranei komeni zaiotelako, oien laguntzarekin egingo dugu, egin beariko dugu. Eta zergatik ez? Noski, oiek gurekin bizitzen ikasi beariko dute, eta guk oiekin bizitzen ere bai. Bai gizon bezala eta baita kultura eta beste sozial eta politika arazoei dagozkien bideei begira jarrita ere; inmigranteak gu bezelaxe gizonak eta askatasunaren diña dira, eta noski, gaiñontzekoenak (orain gureak) errespetatzera beartuak ere bai, batez ere gure lurrean eta gure errian lan eta jan eta bizi-lekua errespetoan arkitu badute.

Ara ba gaurko gure arazo nagusi bat: guk kanpotik etorritako oiekin egiten jakingo dugun neurrian arkituko dugu gur erria berritu eta indartzeko bear duen giroa, eta indarra.